A

## DICTAMEN

D XXX , funcionario de la Diputación Foral de Bizkaia desde el año 1999, estuvo desempeñando, con carácter definitivo, un puesto de trabajo del Departamento de Medio Ambiente desde el año 2003 hasta el año 2005.
El 1 de enero del año 2006 le es asignado un nuevo puesto, en régimen de comisión de servicios forzosa debidamente tramitada, en el Departamento de Cultura, al que no se incorpora sin causa justificada.

Por este motivo, la Diputación Foral de Bizkaia ordena, el 2 de febrero de 2006, la incoación de un expediente disciplinario. La iniciación de ese procedimiento se intentó notificar en el domicilio que constaba en su hoja de registro personal, que es el mismo que se utilizaba a efectos de nóminas.

Dado que el afectado no acusó recibo de la comunicación se procedió a la publicación de aquella en el tablón de edictos del Ayuntamiento de su último domicilio conocido (Sopelana) y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Bizkaia. Se suspendió además provisionalmente de sus funciones al interesado.

Las citaciones para recibir declaración al expedientado así como para trasladarle el pliego de cargos formulado por el instructor del expediente se publicaron en el tablón de edictos del Ayuntamiento de Sopelana y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Bizkaia, dado que no había recibido personalmente las comunicaciones.

El 9 de agosto de 2006, el Sr. XXX. presentó escrito en el que manifestaba haber acusado recibo del pliego de cargos sin haber tenido conocimiento hasta ese momento de que estaba incurso en un expediente disciplinario. Por tal motivo solicitó un plazo adicional de tiempo para reunir documentación para su mejor defensa. El 11 de agosto de 2006 se le concedió un nuevo plazo de diez días hábiles a partir del 1 de septiembre para que pudiera formular alegaciones.

Transcurrido ese plazo sin que se presentara documento ni escrito alguno, se citó al expedientado a fin de darle vista del expediente, lo que se produjo el día 27 de septiembre de 2006, momento en el que se le hizo entrega de una copia literal del expediente y se le emplazó otra vez por diez días para que pudiera alegar cuanto considerara conveniente en su defensa.

El 6 de octubre de 2006, D. XXX. presentó pliego de descargos en el que hacía referencia a un supuesto defecto de notificación en la resolución de asignación del nuevo puesto en régimen de comisión de servicios. Añadiendo que había cambiado de domicilio hacía más de cinco años, cambio que había notificado a la Administración, sin perjuicio de que siempre había vivido en Sopelana, por lo que entendía que no se habían realizado las diligencias mínimas para localizarle.

El 11 de octubre de 2006 el instructor del procedimiento sancionador emitió propuesta de resolución en la que concluía que procedía declarar al Sr. XXX. responsable de la comisión de una falta muy grave de "abandono del servicio", en la que propuso la imposición de sanción de separación del servicio frente a otras

posibles porque el artículo 83.c) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, modificada por la Ley 16/1997 que tipifica la infracción de abandono de servicio; invoca asimismo las agravantes de "intencionalidad" y "grave perturbación del servicio" que contempla el artículo 86.1 de dicha Ley 6/1989. Se añadía que había incurrido en un "abandono de servicio", y que en su actuación se apreciaba "una falta total y continuada de asistencia al servicio a que está obligado por su condición de funcionario" y "una dejación absoluta de sus obligaciones funcionariales", además de "no haber encontrado, el instructor del expediente a lo largo del mismo, ningún elemento exculpatorio o circunstancias atenuantes a la hora de moderar la sanción propuesta".

El 30 de octubre de 2006, el interesado presentó escrito de alegaciones en el que manifestaba su total disconformidad con la propuesta porque el expediente mostraba un grave desconocimiento de su situación personal y porque el puesto de trabajo era forzoso, solicitando que debía sobreseerse el mismo ya que la incomparecencia al nuevo destino era consecuencia de una falta de notificación que no le era imputable así como la procedencia de incoar y tramitar de nuevo el procedimiento dado el tiempo transcurrido desde su inicio.

El 27 de febrero de 2008 la Diputación Foral de Bizkaia procede al dictado de una resolución por la que declara la caducidad del expediente sancionador.
El mismo día 27 de febrero de 2008, la Diputación Foral de Bizkaia dicta otra resolución por la que ordena la incoación de un nuevo expediente disciplinario al mismo funcionario por los mismos hechos.

Los días 6 y 7 de marzo de 2008 se intentó sin éxito la notificación en el último domicilio conocido del interesado en el que se había producido con anterioridad alguna notificación con éxito.

El día 12 de marzo de 2008 se remitió de nuevo la notificación al mismo domicilio, constando dos intentos de notificación por correo certificado. Intentada sin éxito la notificación en el domicilio del interesado, se realizó la notificación por vía edictal. El 14 de marzo de 2008 se publicó la resolución notificada en el Boletín Oficial, en la que se disponía igualmente su publicación en el tablón de edictos del Ayuntamiento de Sopelana.

En la resolución cuya notificación se remitió el 12 de marzo de 2008 constaba también la citación del interesado para tomarle declaración sobre los supuestos hechos que habían dado lugar a la tramitación del expediente disciplinario. Intentada sin éxito la notificación en el domicilio del interesado, se realizó la notificación por vía edictal. El 25 de marzo de 2008 se publicó la resolución notificada en el Boletín Oficial, en la que se disponía igualmente su publicación en el tablón de edictos del Ayuntamiento de Sopelana. El funcionario no se presentó para prestar declaración.

La notificación del pliego de cargos se remitió al interesado el 4 de abril de 2008, concediéndole un plazo de 10 días para contestar al mismo. La infracción imputada era "no acudir al puesto de trabajo, denominado Técnico Restauraciones, del Departamento de Cultura, desde el 1 de enero de 2006 hasta la actualidad".

Intentada sin éxito la notificación en el domicilio del interesado, se realizó la notificación por vía edictal. El 7 de abril de 2008 se publicó la resolución notificada en el Boletín Oficial, en la que se disponía igualmente su publicación en el tablón de edictos del Ayuntamiento de Sopelana.

La notificación del trámite de audiencia se remitió el 18 de abril de 2008 al domicilio conocido. Intentada sin éxito la notificación en el domicilio del interesado, se realizó la notificación por vía edictal. El 28 de abril de 2008 se publicó la resolución notificada en el Boletín Oficial, en la que se disponía igualmente su publicación en el tablón de edictos del Ayuntamiento de Sopelana.

El 18 de abril de 2008 se acordó la suspensión de funciones con carácter provisional del funcionario, con pérdida del derecho a percibir retribuciones. Ese mismo día se le remitió la oportuna notificación. Intentada sin éxito la notificación en el domicilio del interesado, se realizó la notificación por vía edictal. El 2 de mayo de 2008 se publicó la resolución notificada en el Boletín Oficial, en la que se disponía igualmente su publicación en el tablón de edictos del Ayuntamiento de Sopelana.

El 3 de mayo de 2008 el Sr. XXX presenta escrito de alegaciones aduciendo la prescripción de la falta cometida y la caducidad del procedimiento sancionador.

El 15 de mayo de 2008 la Diputación Foral de Bizkaia remitió al interesado en su domicilio conocido notificación de la propuesta de resolución en la que se propone la sanción de separación de servicio. Intentada sin éxito la notificación en el domicilio del interesado, se realizó la notificación por vía edictal. El 25 de mayo de 2008 se publicó la resolución notificada en el Boletín Oficial, en la que se disponía igualmente su publicación en el tablón de edictos del Ayuntamiento de Sopelana.

---

Se pide la elaboración de dictamen sobre la conformidad a derecho de la propuesta de la sanción de separación del servicio.

## CASO PRACTICO

La Empresa X ante una liquidación relativa al Impuesto sobre Sociedades, correspondiente al ejercicio Y, practicada por la Hacienda Foral de Bizkaia, interpone Reclamación Económica Administrativa ante el Tribunal Económico Administrativo Foral de Bizkaia que es **expresamente** desestimada mediante Resolución notificada el 23 de enero.
El Gerente de la Empresa, con el solo Acuerdo del Consejo de Administración que le autoriza a otorgar Poder General para Pleitos, decide otorgarlo y ordenar a Abogado impugnar esa Resolución, lo que dicho Abogado realiza presentando recurso contencioso administrativo ante un Juzgado de lo contencioso administrativo de Bilbao.

Preguntas

1ª ¿Es correcto interponer recurso contencioso administrativo contra esa Resolución?

2ª ¿Sirve hacerlo por el Gerente de la SA con el solo acuerdo del Consejo de Administración de facultarle para otorgar poderes?

3ª ¿Es competente el Juzgado contencioso administrativo de Bilbao para conocer el recurso?

4ª ¿En que fecha vence interponerlo?

5ª ¿ En que plazo puede entenderse tácitamente desestimada la Reclamación económico administrativa (es decir, caso de no haberse resuelto expresamente) al objeto de interponer el Recurso procedente?,

A

**IRIZPENA**

XXX jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioa da 1999tik hona. Ingurumen Sailean behin betiko lanpostua izan zuen 2003tik 2005era bitartean.
2006ko urtarrilaren 1ean, lanpostu berria esleitu zitzaion, behar bezala izapidetutako derrigorrezko zerbitzu-eginkizun araubidean, Kultura Sailean. Ez zen lanean hasi lanpostu horretan, justifikatutako arrazoirik gabe.

Hori dela eta, 2006ko otsailaren 2an, Bizkaiko Foru Aldundiak diziplina-espedientea hasteko agindua eman zuen. Prozedura horren hasiera jakinarazteko ahalegina egin zen langileen erroldako orrian agertzen zen helbidean; nominetarako ere helbide hori erabiltzen zen.

Funtzionarioak ez zuenez hartu izanaren berri eman, ezagutzen zitzaion azken etxebizitzako (Sopelana) udaleko iragarki-oholean eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen agindua. Gainera, interesdunari bere eginkizunak eten zitzaizkion, aldi baterako.

Sopelanako Udaleko iragarki-oholean eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren espedientepekoari aitorpena entzuteko zitazioa eta espedientearen instrukzio-egileak egindako karguen orria bidaltzeko zitazioa. Izan ere, ez zituen jakinarazpenak jaso.

2006ko abuztuaren 9an, XXX jaunak idazki bat aurkeztu zuen. Bertan adierazten zuen karguen orria hartu izanaren berri eman zuela, une hartara arte diziplina-espediente batean zegoela jakin gabe. Hori dela eta, epea luzatzeko eskatu zuen, bere defentsa hobeto egiteko agiriak biltzeko. 2006ko abuztuaren 11n, irailaren 1etik aurrera zenbatutako hamar egun baliodunko epea eman zitzaion alegazioak aurkezteko.

Epe horretan ez zuen aurkeztu agiririk ez idazkirik, eta, beraz, espedientepekoari espedientea erakusteko deia egin zitzaion. Hori, 2006ko irailaren 27an gertatu zen; espedientearen hitzez hitzeko kopia eman zitzaion, eta berriro ere beste hamar eguneko epea eman zitzaion, bere defentsarako egoki ikusten zuena alegatu ahal izateko.

2006ko urriaren 6an, XXX jaunak deskargu-orria aurkeztu zuen. Bertan adierazten zuen, ustezko akatsa gertatu zela zerbitzu-eginkizun araubideko lanpostu berria esleitzeko ebazpenaren jakinarazpenean. Horrez gain, adierazi zuen bost urte baino gehiago igaro zirela etxez aldatu zenetik, eta aldaketa hori Administrazioari jakinarazi ziola. Beti bizi izan zela Sopelan zehaztu zuen, eta ez zuela ulertzen nola ez ziren egin bera aurkitzeko gutxieneko eginbideak.

2006ko urriaren 11n, zehapen-prozeduraren instrukziogileak ebazpen-proposamena bidali zuen. Bertan ondorioztatu zuen XXX jauna "zerbitzua bertan behera uzteagatik" arau-hauste oso larriaren arduraduna zela. Zerbitzutik aldentzeko zehapena ezarri zuen beste posible batzuen aurrean; izan ere,16/1997 Legeak aldatu zuen Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 83.c) artikuluak zerbitzua bertan behera uztearen ondoriozko zehapena tipifikatzen du. Halaber, "intentzionalitatea" eta "zerbitzuaren

perturbazio larria" astungarriak aipatu zituen, aipatutako 6/1989 Legearen 86.1 artikuluan zehazten direnak. Honako hauek gaineratu zituen: "zerbitzua bertan behera utzi" zuela, eta bere ekintzan "funtzionario izaera dela-eta bete behar duen zerbitzura ez zela inoiz aurkeztu, eta behin eta berriz egin zuela huts egite hori"; "bere funtzionario-betebeharrak guztiz utzi zituela"; eta "proposatutako zehapena arintzeko orduan, espedientearen instrukziogileak ez zuela aurkitu errugabetzeko elementurik, edo inguruabar aringarririk".

2006ko urriaren 30ean, interesdunak alegazio-idazkia aurkeztu zuen, eta adierazi zuen, ez zegoela batere ados proposamenarekin; izan ere, bere ustez, espedientean bere egoera pertsonalaren ezjakintasun larria adierazten zen, eta lanpostua nahitaez betetzekoa zen. Hori zela eta, artxibatzeko eskatu zuen, lanpostu berrira ez agertzearen arrazoia jakinarazpenik ez egotea izan zelako, eta hori ez zelako bere errua izan. Halaber, prozedura berriro hasteko eta izapidetzeko eskatu zuen, hasi zenetik igarotako denbora zela eta.

2008ko otsailaren 27an, Bizkaiko Foru Aldundiak ebazpena eman zuen, zehapen espedientea iraungitzat emanez.
2008ko otsailaren 27an bertan, Bizkaiko Foru Aldundiak beste ebazpen bat eman zuen; horren bidez, disziplina-espediente berria hasteko agindua eman zion funtzionario berari, ekintza berberengatik.

2008ko martxoaren 6an eta 7an, ahalegina egin zen interesdunaren azken helbide ezagunean jakinarazpena egiteko, baina ez zen lortu; horren aurretik, lortu zen jakinarazpen batzuk arrakastaz egitea helbide horretan.

2008ko martxoaren 12an, berriro bidali zen jakinarazpena helbide berera; horrela, jakinarazteko ahalegin bi egin ziren, posta ziurtatuaren bidez. Ez zen lortu interesdunaren etxebizitzan jakinarazpena egitea, eta, beraz, ediktu bidez egin zen jakinarazpena. 2008ko martxoaren 14an, jakinarazitako ebazpena Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Bertan adierazten zen, Sopelanako Udaleko iragarki-oholean ere argitaratu zela.

Ebazpenaren jakinarazpena 2008ko martxoaren 12an bidali zen; bertan, interesdunari egindako zitazioa ere agertzen zen, disziplina-espedientearen tramitazioa sortu zuten ustezko ekintzei buruz aitortzeko. Ez zen lortu interesdunaren etxebizitzan jakinarazpena egitea, eta, beraz, ediktu bidez egin zen jakinarazpena. 2008ko martxoaren 25ean, jakinarazitako ebazpena Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Bertan adierazten zen, Sopelanako Udaleko iragarki-oholean ere argitaratu zela. Funtzionarioa ez zen bertaratu aitorpena egiteko.

Karguen orriaren jakinarazpena 2008ko apirilaren 4an bidali zitzaion interesdunari, eta 10 eguneko epea eman zitzaion erantzuteko. Ezarritako arau-haustea hauxe zen: "Kultura Saileko Zaharberritze Teknikariaren lanpostura ez aurkeztea, 2006ko urtarrilaren 1etik gaur egunera arte".

Interesdunaren etxean jakinarazpena egiten saiatu, eta, hori egiterik lortu ez zenez, jakinarazpena ediktu bidez gauzatu zen. 2008ko apirilaren 7an, Aldizkari Ofizialean

argitaratu zen jakinarazitako ebazpena, eta, aldi berean, Sopelanako udaleko ediktu-taulan argitaratzea xedatu zen.

Entzunaldi izapidearen jakinarazpena 2008ko apirilaren 18an bidali zen funtzionarioari ezagutzen zitzaion helbidera. Interesdunaren etxean jakinarazpena egiten saiatu, eta, hori egiterik lortu ez zenez, jakinarazpena ediktu bidez gauzatu zen. 2008ko apirilaren 28an, Aldizkari Ofizialean argitaratu zen jakinarazitako ebazpena, eta, aldi berean, Sopelanako udaleko ediktu-taulan argitaratzea xedatu zen.

2008ko apirilaren 18an, erabaki zen funtzionarioari bere betebeharrak behin-behinean etetea, eta, horrekin batera, ordainsariak jasotzeko eskubidea galaraztea. Egun horretan bertan, horri dagokion jakinarazpena bidali zitzaion. Interesdunaren etxean jakinarazpena egiten saiatu, eta, hori egiterik lortu ez zenez, jakinarazpena ediktu bidez gauzatu zen. 2008ko maiatzaren 2an, Aldizkari Ofizialean argitaratu zen jakinarazitako ebazpena, eta, aldi berean, Sopelanako udaleko ediktu-taulan argitaratzea xedatu zen.

2008ko maiatzaren 3an, XXX jaunak, alegazio-idazkia aurkeztu, eta argudiatu zuen hutsegitea preskribatua zela eta zigortzeko zehapen-prozedura iraungia zela.

2008ko maiatzaren 15ean, Bizkaiko Foru Aldundiak ezagutzen zion helbidera bidali zion interesdunari ebazpen proposamen horren jakinarazpena, hau da, zerbitzutik baztertzeko zehapena proposatzen zuena. Interesdunaren etxean jakinarazpena egiten saiatu, eta, hori egiterik lortu ez zenez, jakinarazpena ediktu bidez gauzatu zen. 2008ko maiatzaren 25ean, Aldizkari Ofizialean argitaratu zen jakinarazitako ebazpena, eta, aldi berean, Sopelanako udaleko ediktu-taulan argitaratzea xedatu zen.

---

Hona egin beharreko lana: funtzionarioa zerbitzutik baztertzeko zehapen proposamena zuzenbidearen araberakoa den ala ez adierazteko irizpena idatzi.

A

## KASU PRAKTIKOA

X enpresak Sozietateen gaineko Zergari buruzko likidazio bat jaso du, Y ekitaldiari dagokiona eta Bizkaiko Foru Ogasunak egin duena. Horren aurrean, erreklamazio ekonomiko administratiboa aurkeztu du Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboan, eta Auzitegiak **beren-beregi** ukatu du erreklamazio hori, urtarrilaren 23an jakinarazitako Ebazpen baten bidez. Enpresaren kudeatzaileak (auzietarako ahalorde orokorra emateko baimena ematen dion Administrazio Kontseiluaren erabaki batez soilik baliatuta) erabakitzen du, auzirako ahalordea eman, eta abokatuari agintzea aurkaratu dezala ebazpen hori. Horren ondoren, abokatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezten du Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegi batean.

Galderak

1.- Zuzena al da ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztea?

2.- Balio du sozietate anonimoaren kudeatzaileak egitea, Administrazio Kontseiluak ahalordeak emateko baimena ematen dion erabakiaren bidez soilik egiten badu?

3.- Eskuduna al da Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegi bat errekurso hori epaitzeko?

4.- Zein datatan aurkeztu behar du errekurtsoa?

5.- Zein epetan eman daiteke isilbidez ukatutzat erreklamazio ekonomiko administratiboa (hau da, beren-beregi ebatzi ez bada), egoki den errekurtsoa aurkeztu ahal izateko?